



Euskadiko hiri txirrindularien elkarteek, Biziz Bizi, Kalapie, Bizikleteroak, Gurpilartea eta Balazta-k osasungintzan, mugikortasunean, jasangarritasunean, hiri segurtasunean, ingurumenean eta ogasunean ardura eta eskuduntza duten Eusko Jaurlaritzako sailei honakoa eskatu nahiko genieke:

COVID-19 ak sortutako egoera larriari aurre egiteko, gizartearen mugikortasuna eta egonaldia, erarik seguruenen bermatuak izan daitezken, **presazko baliabide eta ahaleginak har ditzala, bide segurtasun eta osasun berme guztiak errespetatuaz.**

ZIOEN AZALPENA

Berriki Bizikletarentzako Hiri Sareak agiri bat plazaratu du, non bertan hiri eta lurraldeetan Covid-19 larrialdi egoerari aurre egiteko, **bizikletaren erabilera sustatzeko plan bat**, ageri den. Bertatik, gure lurralderako garrantzitsuak diren gaiak egokitu eta moldatu ditugu testu honetan zehar:

Koronabirusaren larrialdi egoera honek presazko aldaketa bortitzak dakartza hirigune eta metropoli mugikortasunaren alorrean, mugimenduak murriztu baitira elkarren arteko distantziaren neurri seguruak tarteko. Paradigma berri bati aurre egin behar zaio hurrengo hilabete eta urteetan. Aldaketa hauek Herrialde eta hiri desberdinetan gauzatu dira, batzuk oso gertu ditugunan, Frantzia kasu. Bertan, presazko plan integral bat gauzatzen ari dira, bizikleta ibilgailu nagusi gisakokatu ahal izateko herrialde osoan, Covid-19ari aurre egiteko asmoz.

Gaur gaurkoz, ezin jakin noiz arte luzatuko den elkarren arteko distantzia neurri seguru mantendu beharra, egoera honek bakarkako mugikortasun aukerak bultzatzea dakarrelarik. Bizikletak, egunerokotasunerako itzulera modu antolatu eta isolatu batean burutu ahal izatea berma dezake. Osasun Ministerioak ere, oinezko eta bizikletazko mugimenduen alde egin du, pertsonen arteko distantziaren mantentzea hoberen bermatzen duela baitio.

Azpimarratu nahi dugu Covid-19 pandemiak arnas aparatuari erasaten diola bereziki, eta eremu kutsatuenerako inguruneetan gogorrago erasaten ari da, zenbait azterketa zientifikok eta munduko unibertsitatek berresten duten bezala (adb., Harvard Unibertsitatea, Aarhus Unibertsitatea, Sienako Unibertsitatea eta Boloniako Unibertsitatea). Hori dela eta, motordun ibilgailu pribatu pertsonala lehenesten saihestea zentzuduna dirudi, aurreko kutsadura mailaren errudun nagusietako bat baita.



Bestalde, osasun krisi larriaren berpiztea krisi ekonomiko zein sozialari estuki loturik dago, hori dela eta, berebiziko garrantzia izango du garraio publikoak eta mugikortasun aktiboak berpizte horretan, garraio mota merke eta eskuragarriak baitira gizarte osoarentzat.

Garrario publikoetan, pertsonen arteko segurtasun distantziak mantendu beharraren ondorioz, edukiera asko murriztu da (2 pertsona 6m²-ko) itxialdia dela-eta. Egoera honek derrigortuta, herritar askorengan euren mugitzeko moduaren aldeketak dakar, alegia, ibilgailu pertsonal motordunaren aldeko apustua egitea ekar dezake, horrek dakarren arriskuarekin. Hau horrela, garraio publikoaren ohiko erabiltzaileek alternatiba bat bilatu beharko dute gertuko lekualdaketetarako, aukera onena oinez edo bizikletan egitea da, distantzia ertainetan (8km azpitik) bizikleta delarik eraginkorrena.


Bizikleta ibilgailu, merke, eraginkor, seguru eta ekologikoa izan arren, orohar, ez da aukerako garraio bide gisa jotzen, jendea ez baita ausartzen errepidetik bizikletaz ibiltzeko. Baina errai seguruak bultzatuz gero, erabiltzaile gehiago erakarriko lituzke aukera honek, garraio publikoaren beste alternatibarik ez dutenentzako utziaz.

Oinezkoei dagokienez, 2.5m azpiko espaloiak eta hauei atxikita dauden bizikleta bideak, ez dute bermatzen pertsonen arteko distantzia minimoa. Horregatik, espazio publikoaren banaketaren analisia egitea beharrezkoa ikusten dugu, aldi baterako oinezkoen espaloiak zabaldu daitezzen.

Egoera honen aurrean, **presazkoa** da segurtasuna bermatzea: a) oinezkoen egonaldietan (zebrabideak gurutzatu aurreko egonaldietan, komertzio atarrietako hilarak eta garraio publikoaren zainguneak kasu); eta b) hiritarren mugikortasuna modu seguruan egin dadin, bai garraio publiko eta baita norbanako mugikortasun aukeretan (oinetz edo bizikletan).

Honako sailkapen honetan bizikletaren erabilerak dakartzan onurak orokorrak zerrendatuko ditugu, baita bereziki Covid-19 pandemiari aurre egiteko baliagarri direnak:

- **Banako garraio** mota da, **distantzia fisikoa** errazten duena.
- Itxialdi eta sedentarismo garaia hauetan, mugikortasun aktibo bat da, **osasuna eta ongizatea sortzen** duena erabiltzen duen pertsonarengan.
- Aukera duten orok egiten badu, **garraio publikoaren okupazioa jeitsiko** da.
- Salagaiak eta e-commerce banatzeko, **bizikletalogistika** modu **azkar eta eraginkorrena** dela frogatzen ari da egunotan, bereziki gertuko komertzioarentzat.



Hau dela eta, onderengo neurri hauek ahalik eta azkarren martxan jartzea proposatzen dugu:

GIZARTE-OSASUNA ETA BIDE SEGURTASUNA BERMATZEKO OINARRIZKO NEURRIEN PROPOSAMENA:

Bizikleta bideei dagokioneaz:

- **Hirigunean gehienezko abiadura 30km/h-ra jeistea.** 30hiria Erkidegoko herri eta hiri guztietan ezarri behar da derrigorrez. Neurri honez gain, bizitegi lasaietako guneeetan 20km/h gehienezko abiadura muga ezarri beharko da. Abiadura da istripu gehien sortzailea, edota istripuen larritasuna areagotzen du. Istripuak saihestea administrazioaren helburu nagusietako bat izan behar du, orain gehaigo gure osasun zerbitzuak gainezka daudela.
- **Hiri eta hiri-arteko bizikleta bideak ezarri.** Zirkulazioarako errai bat baina gehiago duten kalezadetan eta bizikleta biderik ez badute, kalezadako eskuineko erraia mugatu modu merkean bizikleta ibiltzeko bidea egokitzea, margotuta, konoekin,... edo beste banaketa mota batekin, bereziki industriaguneetara edo lan eremuetara doazen kale eta bideetan. **Behin krisi ekonomikoen aldia garaituta, bide hauek egokitu beharko lirateke behin-betiko.**
- **Bi norabideko bizikleta erraiak norabide bakarrekoak bihurtu,** kalearen bi aldeetan erraiak dituzten kasuetan.
- **Bizikleta bideen zaintza areagotu** errespeta daitezen, aparkatuta dauden ibilgailuek oztopatu ez dezaketen, erabiltzaileen arriskua igotzen delako.

Semaforoeng inguruan:

- **Semaforoeng txandak aldatu** edo batzuk itzali, lehenetasuna txirrindulari eta oinezkoek izan dezaten, itxaron denborak murriztuz, segurtasun distantziak errespeta daitezen, gogoan izanik, medianetan oinezko edo/eta txirrindulariak pilatuz gero segurtasun neurriak ezin direla bermatu.
- **Botoidun semaforoak ez-gaitu** edo ambar egoeran utzi, botoiak ukitzea kutsatze iturri izan daitekeelako.

Gune publikoaren banaketari dagokionez:

- **Oinezkoentzako eta txirrindularientzako espazioak handitu).** Bereziki espaloi eta bizikletarentzako distantziarik bermatu ezin daitekeen kaleetan, batez ere, jende kontzentrazioa gerta daitekeen komertzioa dagoen kaleetan,



bankuak daudenetan eta garraio publikoen geltokietan. Oinezkoentzako baldintzak bete ezin badaitezke, trafiko motordunari moztea eskatzen dugu. Ostalaritza zerbitzua eskaintzen den kaleetan terrazak eta abar jartzeko distantzia eta neurriak kontutan izan beharko dira.

Bizikleta publikoaren inguruan:

- **Bizikleta publikoaren zerbitzua martxan eduki** (zerbitzua eskaintzen den udaletan), maiz desinfektatuz eta erabiltzaileei eskularruen erabilera behartuz, edo zerbitzua erabili ondoren eskuak garbitzea aholkatuz.

Bizikletentzako aparkaleku seguruaren inguruan:

- **Bizikletak aparkatzeko leku seguruak ugaritu** behar den tokietan, betiere oinezkoek lekurik kendu gabe.
- **Behin behineko bizikleta aparkalekuak utzi**, jendetza handia mugitzen duten ekintzetarako erabiltzen direnak (baldin eta udalak horrelako tresneria balu), beharra duten enpresa eta langune zentruetan.

Sektoreari bultzada ekonomikoa ematearen inguruan:

- Gobernu Zentralari urgentziaz eskatzea **bizikleten salmenta eta konponketa tailerren irekitzea**, baimendutako mugimenduetan erabiltzen duten pertsona guztiei zerbitzua emateko
- **Bizikletalogistika bultzatu eta erraztu** pakete txikien banaketa, bertako erosketa eta udaleko zerbitzuak eskaintzeko.
- **Pizgarri ekonomikoak** bizikletak erabili eta erosteko. Dagoen egoera dela eta, bizikleta oinarrizko ibilgailu bihurtu da, bere erosketa bultzatu behar da, zuzeneko laguntzaz, BEZ beherapenak, salbuespen fiskalak bizikletak bere langileen artean banatzen dituzten enpresei, etab.
- **Pizgarri fiskalak** lanera bizikletan doazen pertsona guztientzat, bai eta bizikleta sustatzeko neurriak hartzen dituzten enpresentzat (gordeleku egokiak eta seguruak, aldagelak takilekin eta dutxekin, langileentzako bizikleta flota bat sortzeko, etab.) .

Bukatzeko, azaldutako neurri guzti hauetatik **batzuk soilik epe oso motzean izango dira erabilgarri, itxialdiaren ondorengo lehen urratsetan. Neurri hauen atzerapenak lehenengo egoerara bueltatzea ekar dezake, edo okerrago auto partikularraren erabilpenaren igoera ekar lezake, saihestu beharreko egoera inondik inora.**



Oinarrizko neurri hauek lehen bait lehen egikaritze aldera, Eusko Jaurlaritzak gonbidatzen dugu honako pausu hauek gauzatzera:

1. Neurri eta proposamen hauek Eusko Jaurlaritzak txerta ditzan deskonfinamendu egoerarako planean.
2. Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak eta Udalen artean presazko lantalde bat sortzea, neurri guzti hauek martxan jartzeko. Testu hau idatzi dugun taldeetatik instituzioen eskura jarri nahi dugu, gure urteetako esperientzia eta laguntza eskaintzeko asmotan, egoki ikusten baldin baduzue.
3. Epe ertainerako plangintza bat sustatzea, bizikleta ardatz duen helburu bikoitzeko estrategia bat bultzatzeko:
 - a. Bizikleta bideen sare bat sortzea (bidegorriak), Hiri eta herri nagusiak lotuko dituen; bai Hiri Herri, baita herri herri artean; eta aldi berean sare hori erabilgarri izan dadin Europa mailako EUROVELO sarea osatzeko.
 - b. Bizikleta mugikortasun ekonomia horren giltzarri eta pizgarri bilakatu dadin, bizikleta salmenta, bizikletalogistika, zikloturismoa lagun...

Gurekin Harremanetak jartzeko:

Kalapie: Hiriko Txirrindularien Elkartea (<http://kalapie.org> kalapie@kalapie.org 650070692)

Biziz Bizi: Asociación de Ciclistas Urban@s de Bilbao (<https://www.bizizbizi.org> info@bizizbizi.org 667462123)

Gasteizko Bizikleteroak Ciclistas urban@s Vitoria-Gasteiz (info@bizikleteroak.org 649396043)

Gurpil Artea Elkartea (gurpilartea@gmail.com 675705191)

Balazta: Bidasoako Bizikletaren Aldeko Elkartea (<http://balaztabidasoaes.blogspot.com> balazta2016@gmail.com)